# Gaia: **BIZI  ZAITEZ proioektua**

Vitoria-Gasteizen, 2007ko urriaren 15ean

Guraso agurgarriok:

Iazko ikasturtearen amaieran abian jarri genuen ***BIZI ZAITEZ*** deituriko ekimena. Honen bitartez, garraiobide gisa, bizikletaren erabilera sustatu nahi dugu gure DBH/Batxilergoko ikasleen artean.

Horren berri izan zenuten ikastolako web gunean, **Gure Gauzak** aldizkarian edo hedabideak direla medio. Lehen aldia da gutun baten bitartez zuzentzen gatzaizkizula proiektu honen berri emateko asmoz. Ikasturtearen hasierarako eman nahi genizuen berri zehatzagoak, baina ezin izan dugu.

Dagoeneko zuetako batzuk honen inguruan zein informazio zabaltzen dugun zain izango zarete. Ikusi izan ditugu aurreko ikasturteetan baino ikasle gehiago bizikletaz ikastolara etortzen eta horrek poztu egin gaitu. Proiektu honen logoa egiterakoan ere, nola ez, ikasleak izan ditugu protagonistak.

Hauxe da ekimen honen xede nagusia: **Ikastolara bizikletaz etortzeko konpromisoa hartuko duten ikasleei segurtasun, seinaleztapen eta argiztapen ekipamenduak dohain eskainiko zaizkie, beti ere, autobusa erabiltzeari uko eginez gero.**

Kanpaina honek lau helburu zehatz ditu:
1.- Gasteizek garraioa politikan duen garapen jasangarriaren inguruan ekarpena egitea.
2.- Partikularki, Ikastolak berak garraiorako duen egitasmoan laguntzea. Izan ere, 13 autobus mugitzen ditu egunero gure Ikastolak, 1.500 lagun garraiatuz.
3.- Eremu pedagogikoak sustatu nahi ditugu ere bai: ingurugiro hezkuntza, bide eta zeharkako hezkuntza.
4.- Bestalde, elkartasuna eta norberaren ahaleginen bezalako baloreak indartu.

Estimadas familias:

A la finalización del curso pasado pusimos en marcha el proyecto ***BIZI ZAITEZ***. Por medio de él, queríamos potenciar el uso de la bici como medio de transporte entre el alumnado de la ESO y Bachiller.

De ello tuvisteis conocimiento por medio de la página web, por la revista **Gure Gauzak** o los medios de comunicación. Con el ánimo de reforzar su difusión os escribimos esta carta. Nos habría gustado hacerlo a principios de curso pero no nos ha sido posible.

Sabemos por otra parte que mas de uno de vosotros estáis a la espera de qué es lo que os decimos al respecto. Hemos observado que vienen más alumnos en bicicleta que el año pasado y eso nos ha alegrado. Los alumnos han sido también los protagonistas a la hora de hacer el logotipo identificador del proyecto.

En esto se fundamenta, básicamente, el objetivo de este proyecto: **ofrecer a los alumnos que tomen el compromiso de venir a la ikastola en bicicleta un equipamiento básico de iluminación, señalización y seguridad gratis, a cambio de dejar de usar el servicio de autobús**.

Esta campaña tiene por otra parte cuatro objetivos a trabajar:
1.- Contribuir a la sostenibilidad del transporte en Gasteiz en general.
2.- Y al servicio que necesita Olabide ikastola en particular. La Ikastola utiliza 13 autobuses para trasladar a 1.500 alumnos diariamente.
3.- Con la iniciativa se pretende además reforzar áreas pedagógicas específicas como las de educación ambiental, educación vial y transversal.
4.- Se pretende fomentar valores como la solidaridad y el esfuerzo personal.

Gauza asko ditugu pentsatuak, baina apurka-apurka joango gara. Jadanik arduradun bat izendatu dugu, DBHko Jose Luis Elordi irakaslea. Berarekin batera, hainbat irakasle, zuzendari eta guraso osatu dugu talde bat proiektu hau bideratzeko.Interesatuak jar zaitezte harremanetan Jose Luis Elordirekin, bere e-postara idatziz, **jelordi@olabide.com** edo ikastolako telefonora deituaz: 945-011963. Epea izena emateko urriaren 31 arte zabaldua egongo da.

Oraingoz besterik ez. Proiektua garatzen den heinean joango gatzaizkizu informatzen. Esan beharrik ez dago norbait interesatua balego talde honetan parte hartzeko, ikasle, guraso zein irakasle, ateak zabalik dituela.

Guztion onerako izango delakoan, jaso ezazue nire agurra.

Tenemos muchas cosas pensadas, pero iremos poco a poco. José Luis Elordi, profesor de la ESO, ha sido nombrado responsable del proyecto. Junto a él, un grupo de profesores, directores y padres hemos conformado un grupo de trabajo para impulsar el proyecto. Los interesados poneros en contacto con José Luis Elordi, escribiéndole a su e-mail **jelordi@olabide.com** o llamándole al teléfono de la ikastola, 945-011963. El plazo para apuntarse estará abierto hasta el 31 de octubre.

Por ahora nada más. Os iremos informando en la medida que el proyecto vaya tomando cuerpo. No hace falta decir que si alguien esta interesado en tomar parte en este grupo de trabajo, bien sea padre, alumno o trabajador de la ikastola tiene las puertas abiertas.

Esperando que ello redunde en beneficio de todos, recibid un saludo.

Iñaki Zubeldia Telletxea
Zuzendari Orokorra